

## 8. KOSTUEN EGITURA

Gure enpresa aurrera ateratzeko ordaindu behar izango ditugun kostuak oso txikiak izango dira. Aurreikusten dugun kostu bakarra aplikazioa martxan jartzeko aplikazioak dauden sarean sartzeko ordaindu beharko duguna izango da. Behin bakarrik ordaindu beharko dugu, beraz, ezin dugu kostuen moten sailkapenean sailkatu.

Kostuak izaten baditugu, ordea, haiek minimizatzen saiatuko gara beti, etekina gero eta handiagoa izan dadin. Honek ez du esan nahi gure produktuaren kalitatea jaitsiko denik. Aplikazioa gero eta hobetuz izateko lan asko egingo dugu. Ondorioz, kostuak eta balioak kontuan hartuko ditugu.